

# Kristauak eta juduak

*Las relaciones de cristianos y judíos han sido azarosas desde el comienzo mismo del Cristianismo, porque el nacimiento de éste estuvo ligado también a la ruptura con las comunidades judías en Palestina y en la Diáspora. El recuerdo del juicio y la ejecución de Jesús, las críticas cristianas a la Sinagoga y la oficialización final del Cristianismo en el Imperio romano, así como razos extrarreligiosas, fueron factores que envenenaron la convivencia de creyentes de una y otra Religión.*

Kristautasunak zailtasun handiak izan ditu herri juduarekin harreman adeitsu eta zintzoak izateko. Palestinan kristautasuna sortzearekin batera une gatazkatsuek ezagutu zituzten Sinagoga judutar eta Eliza kristauaren arteko harremanek (Eg 14, 1; 17, 1-8). Ondoko mendeetan, orduko etenak luzaro iraun zuten.

## Herri judua

Egutegi juduan, aurtengo urte hau 5774. urtea da, izan ere tradizio erlijioso juduaren arabera Kristo aurreko 3760. urteko urriaren 7an sortu baitzuen Jainkoak mundua. Bistan da, sinetsi, halakorik ez dutela sinesten juduek (ordodoxo erabat itxiak ez badira), baina judu herriaren segidatasun historiko ohartu baten lekukoa da egutegi hori, herri judua, zinez, milaka urtetik hona datorren herria baita, izatez, kulturaz eta erlijioz. Arrakasta handiz eta hondamendi izugarri betetako historia da juduen hau.

Horren harira, data jakin batzuk ere eman ohi dira iragan hartako gertakari garrantzizkoenak gogorarazteko, kristauok Biblia judutik ezagutzen ditugun pertsonaiak tartean daudela: Abraham K. a. 1850 urte inguruan bizi izan zen, Moises-en Irteerako historia gutxi gorabehera -1250ean jar daiteke, Dabid eta Salomon -1010-931etan edo ditugu. Bien bitartean Mesopotamia eta Egipto historia ederra bizitzen ari ziren, baina, artean, Kartago (-814) eta Erroma (-751) eraiki gabe zeuden.

Bestelako gaitasun eta lorpenen artean, judu herriak erlijiotasunaren zentzu zolia eta jeinu biz-

korra izan du, kristauok "Testamentu Zaharra" deitzen dugun garaietatik hasi eta gaur arte, etengabeko ikaslan serio bati eutsiz (Tora, Misna, Talmud, Kabala).


Kristo aurretik juduek bizpahiru erbestealdi nagusi pairatu zituzten (Egipton, a -1250; Babilonian, -722 eta -597-538); gero, Erromatarrek Jerusalemeko Tenplua desagitean (K. o. 70) eta 132-135eko errebolaren ondoren erbestealdi handi bortxatua etorri zen.

Harrezkero, juduak Diasporan bizi izan dira; "judu erratu" gisara nahiz geto edo auzo bereizietan bilduta, eta XVIII. mendetik hona hainbat eta hainbat tokian tokiko gizartetan berdinduta. XX. mendean, nazismoak ekarritako triskantza (holokaustoa: *xoha*) eta Israelgo Estatuaren sortzea (1948) izan dira Palestina/Israel eta Diaspora modu berrian lotu dituztenak.

Egoera eta abagune gogorrenetan ere, judu herria bere irtenbide eta salbaidiak asmatzen ahalegindu da. Esaterako, jada Tenplua galdua zelarik, Erdi Aroko Europan Errabinoen gidari-instituzioa sortu zuten, elkarte judua gidatzea, lege-maisu (*halaka*) eta epaile jarduteko, prediku-lanerako, Eskola edo *Yeshiva*-ko buru izateko. Erakunde horren arrastoan, baina korronte-modu ezberdinetan, aitzinatu eta garatu da judutasuna, judutasun ortodoxoa eta erreformatua elkarren lehiakide direla.

Harreman-giro zitalenetan ere, bizilekua eta sorlekua zuten lurralde eta gizarteetan moldatzeko gaitasun aparta izan dute juduek. Gizarte kristau eta islamiarretan beren judu-biziera eta erlijioa





zaintzen saiatu dira, horretarako premiazkoak zaituzten segurtasun juridiko-politikoak lortuz. Diasporako erbetea bi modutara ulertu izan dute juduek:

Batzuentzat tragedia eta zigorra izan da; besteentzat, diotenez, *lavah*-ren salbazio-mezua mundu osora eramateko aukera. Ulertzeko bi era horiek garaiari garaiko bake eta erasoen artean bizi izan dira.

### Harreman judu-kristauak

Kristauen artean eta luzaroko, juduekiko jarrera, jokabide erlijioso eta politikoa aldakorrak izan dira, betiere Estatuen, Elizaren eta kristau-herriaren pentsamolde eta interesen arabera. Batzuetan akordio bidezko tolerantzia araua egon da; bestetan, jasanberatasun hori gutxi edo gehiago gogortu egin da, eta aski sarritan pertsegizioa izan da lege, uanean uneko erabakiekin nahiz lege orokorragoen bidez.

Erromatar Inperioan juduek, tolerantziarik izan bazuten ere (Augusto), une politiko eta erlijioso estuagoetan jazarpen gogorra nozitu behar izan zuten, Erromak orduan bizi zuen krisi erlijiosoaren barruan (Tiberio, K. o. 14-37). Ondoren, gerra eta altxamendu armatu galduek (70, 135) ez zuten soberra lagundu Inperioko juduen sosegu politikoa, baikik eta Palestinatik kanpoko Diaspora handia izan zen gainera etorri zitzaizen egoera berria.

Inperioan Caracalla Enperadoreak aitortu zizkien, azkenik, hiritar-eskubideak (212). Hortik aurrerakoa, Enperadore kristauak ezarritako muga hertsia goetan bizi behar izan zuten, nahiz eta Elizaren doktrinak joera ezberdinak erakutsi zituen, babesa emanez edo eskubideak murriztuz.

Gorde zuten bizimodu arautugatik ez zen erraza gizartearen gainerako herritarrekin batera joatea: ezberdinak ziren sinesgai erlijiosoak, erdaikuntza, familiako otoitzak, zapatu-jaia, Sinagogako ospakizunak, urtean zeharreko jaiak, janari-ohiturak, etab. Horrek denak, aparteko auzoetan bizi zirelarik, susmoak eta esamesak sor zitzakeen.

Judu pobre askoren artean, sarritan gailendu ohi ziren dirua eta boterea eskuratzen judu abila-goak. Artisautza eta lanbide apalen ondoan, judu batzuek ongi asmatu zuten, kristauekin harremanean, hainbesteko baten truke, Koroa eta Gotzaindegien zerbitzuan zergak eta hamarrenak biltzen; ez zen hori jendearen onginahia irabazteko ofizio ona.

Kristandade gisara antolatutako gizarte erdiarrotarrea, biziera hark erraz har zezakeen arazo erlijioso baten itxura guztia. Juduena "arazo" ofizial bihurtuta ageri zaigu mende haietako Lege ofizialtan (Teodosio, Justiniano), Errege bisigodoetatik hasita (Recesvinto).

Dena den, *Sefarad* deitu zuten Hispania hartan beren leku babestua izan zuten juduek. XI-XIII. mendeetako Toledo hiri kristaua jarri ohi da kristautasunak hiru erlijioen artean (Islama barne) lortutako elkarbizitza orekatuaren etsenplutzat. Esan behar da, gainera, elkarbizitza adostu hori lehenagotik zetorrela, eta Al-Andalus islamiarrean, orduko mundu musulman osoan bezala, legezko babesa izan zutela.

XIV. mendean gauzak aldrebesten asi zen arte *Sefarad*-en. Gogorrek, oso gogorrek, izan ziren 1328 (Nafarroa) eta 1391ko *pogrom* deituak, jende arteko juduen erahilketak. Horrezaz gain, 1450 ingurutik aurrera gora eta gora egin zuen Gaztelan, judu bataiatu berriekiko (*converso*-en) susmo gaiztoak.

1492an, Errege Katolikoen erabakiz, bortxatuta erbestera joan behar izan zuten erlijio juduari eutsi nahi izan ziotenak. Ez zen hori Europa kristauan gertatu zen lehenengo aldia; aitzitik, beste hainbat herrialdetan horrelakorik.

Ondo kostata, Vatikanoko II.ak aldarazi ditu (1965) juduekiko harreman zaharkitu eta hondatuak, nahiz eta oraindik ere hodei ilunik falta ez den.

**Joseba Intxausti**